BUSTURIALDEKO GIZARTE-ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA.

I. KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA, ARAU APLIKAGARRIAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA 1
2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO-TASA. GEHIENEKO AURREKONTUA ETA PREZIO UNITARIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA 2
3. PREZIOAK BERRIKUSTEA 3
4. AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA 3

II. ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZION ONARTZEKO ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA

5. ENPRESA LIZITATZAILEAK.....4
6. LIZITAZIOAN ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA.....5
7. DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA.....6

III. ADJUDIKATZEA

8. ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA LIZITATZAILE GISA PROPOSATUTAKO ENPRESAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.....8
9. BEHIN BETIKO BERMEA 10
10. ADJUDIKATZEA ETA JAKINARAZTEA 10

IV.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

11. - KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK 11
12. KONTRATUA FORMALIZATZEA 12

V.- KONTRATUA EGIKARITZEA

13. KONTRATUA EGIKARITZEA.....12

VI. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.....22

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA, ARAU APLIKAGARRIAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA

1.1.- Kontratu honen xedea Agiri honen hasieran dagoen Ezaugarrien Koadroko A) atalean deskribatutako zerbitzua kontratatzea da.

1.2.- Zerbitzuaren prestazioa Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian jasotako baldintzetara egokituko da.

Ondorio guztietarako, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek, Ezaugarrien Koadroak, Preskripzio Teknikoen Agiriak eta eranskinek kontratu-dokumentu izaera izango dute, eta, beraz, alderdien eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte. Hala, enpresa adjudikaziodunak, kontratua formalizatzeko ekitaldian, sinatu egin beharko ditu, ados dagoela adierazteko.

Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakoaren artean desadostasunik egonez gero, Agiri honetan ezarritakoa nagusituko da, alderdi eta zehaztapen teknikoetan izan ezik.

1.3.- Honako hauek aplikatuko zaizkio kontratazioari: Agiri hau; Preskripzio Teknikoen Agiria; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legea (SPKL), azaroaren 8koa, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten den Espainiako ordenamendu juridikora; 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duena (APKLEO); eta estatuan zein Euskal Autonomia Erkidegoan kontratazioa arautzen duten eta eremu horretan aplikagarriak diren gainerako xedapenak.

1.4.- Kontratua adjudikatzeko, SPKLren 156. artikulutik 158. artikulura bitartean aurreikusitako prozedura irekia erabiliko da, eta APKLEOn edo hura ordezten duen erregelamendu-xedapenean horri dagokionez jasotako artikuluetan ezarritakoa beteko da.

2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO-TASA. GEHIENEKO AURREKONTUA ETA PREZIO UNITARIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

2.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa eta lizitazio-tasa Agiri honen Ezaugarrien Koadroko B) atalean agertzen direnak dira.

2.2.- Kreditu zehatza dago kontratu hau betetzeak Administrazioari dakarzkion betebehar ekonomikoei aurre egiteko; Ezaugarrien Koadroko C) atalean ageri den aurrekontu-aplikazioan dago jasota.

Gastu-espediente baten aldez aurreko izapidetzea dela adierazten bada, prestazioak gauzatzen hasteko, beharrezkoa izango da dagokion ekitaldian indarrean dagoen aurrekontu-taldean kreditu egokia eta nahikoa egotea.

2.3.- Kontratuaren prezioa kontratuaren adjudikaziotik ateratzen dena izango da, eta ezingo du gainditu Administrazioak formulatutako lizitazio-tasa.

Ondorio guztietarako, ulertuko da kontratuaren prezioak barnean hartzen dituela kontratatutako prestazioa normaltasunez gauzatzeko enpresa kontratistak egin behar dituen zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak, bai eta indarrean dauden xedapenen arabera aplikatu beharreko beste edozein tasa ere, eta, halaber, era guztietako zerga eta lizentzia guztiak, udalekoak, probintzialak eta estatukoak.

3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioak ez dira berrikusiko.

4.- AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA

Administrazio Klausula Partikularren Agiria, Preskripzio Teknikoen Agiria eta gainerako dokumentazio osagarria Euskadiko kontratazio publikoaren plataforman egongo dira eskuragarri. Plataforma horretara Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Kontratatzailearen Profilaren bidez ere sartu ahal izango da. Bestalde, SPKLren 138.2 artikuluan adierazitako kasuetan, Administrazio honetan aztertu ahal izango da, egun baliodun guztietan, 9:00etatik 13:00etara, informazio hori plataforma horretan argitaratzen denetik proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Proposamenak aurkeztu aurretik, interesa duten enpresak Mankomunitatearekin harremanetan jarri ahal izango dira, lizitazio honen inguruabar espezifikoei buruz kontsulta egiteko.

Enpresa interesdunen batek agiriei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatzen badu baliozko aldian, SPKLren 138. artikuluan eta APKLEOren 78. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Agiriei eta dokumentazio osagarriari buruz eskatzen den informazioa eskaintzak aurkezteko ezarritako azken eguna baino gutxienez sei egun lehenago eman beharko da, betiere eskaria gutxienez hamabi egun lehenago aurkeztu bada, edo kontratazio-organoak kontratuaren eta prozeduraren inguruabarrak kontuan hartuta agirietan ezarritako aurrerapenarekin.

Eskatutakoa Preskripzio Teknikoen Agirian, Administrazio Klausula Partikularren Agirian edo gainerako dokumentazioan jasota dagoenari buruzko argibideak badira, erantzunak lotesleak izango dira eta Kontratatzailearen Profilean argitaratuko dira.

Kontratu-espedienteari buruzko informazio guztia, bai eta Administrazioaren kontratu-jarduerari buruzko beste edozein datu eta informazio ere, Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da, SPKLren 63. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontratatzailearen Profilerako sarbide publikoa Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzailearen Profilaren bidez egingo da (Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen Kontratatzailearen Profiletik ere jo ahal izango da).

II. ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZION ONARTZEKO ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA.

5. ENPRESA LIZITATZAILEAK.

5.1. Honako hauek aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak kontratuaren xede den lizitazioan, aurrerago zehazten den moduan: jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridiko espainiar nahiz atzerritarrek, SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuren batean sartuta ez badaude, eta betiere kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala dutela egiaztatzen badute, edota, SPKLk hala eskatzen duen kasuetan, behar bezala sailkatuta badaude.

Enpresek, halaber, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

Pertsona juridikoek beren estatutuen edo fundazio-erregelen arabera berezko duten helburu, xede edo jarduera-esparruarekin bat datorren xedea duten kontratuetara bakarrik lizitatu ahal izango dute.

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko, enpresa beste entitate batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu ahal izango da, edozein dela ere entitate horiekin dituen loturen izaera juridikoa; betiere, egiaztatzen badu kontratua egikaritzen den bitartean benetan izango dituela kaudimen eta bitarteko horiek, eta baliatzen duen entitate horrek ez duela kontratatzeko inolako debekurik, SPKLren 75. artikuluan ezarritakoaren arabera.

SPKLren 69. artikuluari jarraituz aldi baterako eratzen diren enpresa-elkarteek ere aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak. Elkartea osatzen duen enpresa bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko eta finantzario, tekniko edo profesionala egiaztatu beharko du, ondorengo klausuletan aipatzen den dokumentazioa aurkeztuz. Dokumentu pribatu batean adierazi beharko dira izenpetzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak, horietako bakoitzaren partaidetza, eta kontratuaren indarraldian zer pertsonak edo entitatek ordezkatuko dituen Administrazioaren aurrean. Halaber, adierazi beharko da konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa-elkartea osatzeko, adjudikaziodun suertatuz gero. Aipatutako dokumentua elkartea osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute.

5.2. Parte hartzeko eskaera eta, hala badagokio, proposamena aurkezteak honako ondorio hauek ditu:

- baldintzarik gabe onartzea Agiri honetako klausulak eta Ezaugarrien Koadroko, Preskripzio Teknikoen Agiriko eta gainerako kontratu-dokumentuetako zehaztapenak, osorik eta inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

- erantzukizunpeko adierazpen batean jasotzea aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta kontratazioaren xede diren prestazioak kontratatzeko eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

- Kontratazio-mahaiari eta -organoari baimena ematea Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Prozedura honetan ezin izango dute parte hartu, ez zuzenean eta ez zeharka, haiei lotutako enpresen bitartez, zehaztapen teknikoak edo kontratua prestatzeko agiriak egiten parte hartu duten enpresek, ezta kontratazio honen prozedura prestatzerakoan kontratazio-organoari aholku eman diotenek ere, baldin eta parte hartu izanak lehia faltsutzen badu edo pribilegiozko tratua ekar badiezaieke gainerako enpresa lizitatzaileekin alderatuta.

Enpresa lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Bestalde, indibidualki aurkeztu den enpresa lizitatzaileak ezin izango du beste enpresa batzuekin aldi baterako elkartuta proposamenik izenpetu. Arau horiek urratzen dituztenek aurkeztutako proposamenak baztertu egingo dira automatikoki.

6.- LIZITAZIOAN ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA.

Proposamenak Administrazio honetako Kontratazio eta Zerbitzuen Sailean aurkeztuko dira, Ezaugarrien Koadroko I) puntuan ezarritakoaren arabera.

SPKLren 136.2 artikuluan (138.3 artikuluari lotuta) xedatutakoaren arabera, agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria ezin izan bada adierazitako epeetan eman, eta eskaintzak tokian bertan bisita egin ondoren edo agiriari erantsitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu ondoren bakarrik egin daitezkeenean, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, ukitutako hautagaiek eskaintzak aurkezteko behar den informazio guztia ezagutu ahal izan dezaten egokitzat jotzen den denboran.
Bi betekizun horiek betetzen ez badira, dokumentazioa ez da onartuko, aurkezteko epea amaitzen den data eta ordua igaro ondoren jasotzen bada. Data horretatik hamar egun natural igarotzen badira dokumentazioa jaso gabe, dokumentazio hori ez da inolaz ere onartuko.

Behin proposamen bat aurkeztu ondoren, ezin izango da erretiratu, inolako aitzakiarekin, arrazoi justifikaturik izatean salbu.
Proposamena enpresa batek baino gehiagok egiten badute, aldi baterako enpresa-elkarte bat eratzeko konpromisoarekin, haietako bakoitzaren ordezkariak sinatuta egon beharko du proposamenak.
Enpresak, SPKLren 75. artikuluari jarraituz, beste enpresa batzuen kaudimenera eta bitartekoetara jotzen duenean, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, kasu horietarako dagokion informazioa jasotzen duena, I. eranskinean jasotako EREDUAren arabera.

Lizitaziora aldi baterako enpresa-elkarte gisa aurkezten diren enpresei dagokienez, aldi baterako elkartea osatzen duten enpresa bakoitzak egingo du erantzukizunpeko adierazpena, eta, gainera, aldi baterako elkartea osatzen duten enpresen izena eta inguruabarrak eta horietako bakoitzaren parte-hartzea, elkartearen ordezkari edo ahalordedun bakarraren izendapena eta kontratuaren adjudikaziodun suertatzen bada aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa adierazten dituen dokumentua aurkeztu beharko du, SPKLren 69.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz.
Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpenak Europar Batasunean onetsitako Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatuaren araberakoa izan beharko du, eta enpresaren edo, hala badagokio, ABEEaren helbidea jaso beharko du, dagozkion jakinarazpenak bertara egin ahal izateko.

Administrazioak hala adjudikazioa egin aurretik nola kontratua egikaritu bitartean egiaztatu ahal izango du enpresa adjudikaziodunak A gutun-azalean bere kontratatzeko gaitasunari buruz sartutako dokumentuak egiazkoak direla, baita, behar izanez gero, Ezaugarrien Koadroan jasotzen diren agiriak ere, egikaritze-baldintza berezien ingurukoak. Enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak izanez gero, kontratua baliogabetu ahal izango, hala dagokionean, kontratistari egotz dakiokeen ez-betetzeagatik; hala gertatuz gero, enpresak galdu egingo luke behin betiko bermea edo haren balioko kalte-ordaina, eratu ez bada, edo zenbateko baliokideko kalte-ordaina, hura eratzea eskatzen ez bada, eta, gainera, Administrazioari kalte-ordaina eman beharko lioke, konfiskatutako bermearen zenbatekotik gora sortutako kalte eta galerengatik.

7.- DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA

7.1.- KONTRATAZIO-MAHAIA. Jasotako proposamenak aztertzeko xedearekin, Kontratazio-mahaia eratuko da, eta Ezaugarrien Koadroko J) atalean ezarritako moduan egongo da osatuta.

7.2.- PROPOSAMENAK AZTERTZEA. Kontratazio-mahaiak A gutun-azalen edukia aztertuko du aurrena, eta garaiz eta behar bezala aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatuko ditu. Hori guztia egiaztatzeko, gutun-azalak irekitzeko aginduko du mahaiburuak. Mahaiak akats materialik ikusten badu aurkeztutako dokumentazioan, enpresa interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez ***hiru egun balioduneko*** epea emango dio enpresa lizitatzaileari akatsa zuzentzeko.

Kontratazio-mahaiak, aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatu ondoren, eta, hala badagokio, atzemandako akatsak edo hutsuneak konpondu ondoren, lizitazioan zein enpresa onartu diren erabakiko du, eta berariaz adieraziko du zein enpresa baztertu diren eta zergatik.

Hala badagokio, Kontratazio-mahaiak **B gutun-azalak irekiko ditu** (betekizun teknikoak eta balio-judizio baten mendeko haztapen-irizpideei buruzko dokumentazioa). B gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten mendeko irizpideak biltzen dituena, ekitaldi publikoan irekiko da, Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen egoitzan, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo astearteko 9:00etan. Eskaintzak irekitzeko eguna jaieguna bada, hurrengo lehen egun baliodunean egingo da. Hala ere, kontratua ahalik eta azkarren adjudikatzearren, gutun-azalen irekiera aurreratzea komeni dela uste bada, aipatutako eguna baino lehen egin ahal izango da gutun-azalak irekitzeko ekitaldia; kasu horretan, iragarki bat jarriko da mankomunitatearen kontratatzailearen profilean, eta posta elektronikoz jakinaraziko zaie dagokion kontratazio prozeduran parte hartu duten lizitatzaile guztiei. Dokumentazio horretako akatsak edo hutsuneak konpondu behar badira, Mahaiak sei egun balioduneko epea emango du, gehienez ere.

B gutun-azalak ireki ondoren, balorazioaz arduratzen den organoari emango zaio bertako dokumentazioa.

Irizpide horien balorazioa egiteko epea bi hilabetekoa izango da gehienez ere, irekitze-ekitaldia egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

B gutun-azalean jasotako dokumentazioa ireki eta baloratu ondoren, kontratatzailearen profilean adierazitako egunean eta orduan **publikoki irekiko da C gutun-azala**, proposamen ekonomikoak eta formulen bidez ebalua daitezkeen gainerako irizpideei buruzko dokumentazioa biltzen dituena.

Prozedura behar bezala gauzatuko dela bermatzeko, Kontratazio-mahaiak adjudikazio-proposamena egin aurreko edozein unetan, legez eta agiri honetan kontratatzeko eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkez ditzatela eskatu ahal izango zaie entitate lizitatzaileei.
Kasu horretan, hori eskatu zaien entitate lizitatzaileek adierazten zaien epean aurkeztu beharko dute eskatutako dokumentazioa; epe hori gehienez ere hamar egun baliodunekoa izango da. Aurkeztutako dokumentazioan akats edo hutsune konpongarriak badaude, gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango da horiek zuzentzeko.
Ohartarazi beharko da legeak eta agiri honek kontratatzeko eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea amaitzen denekoa izango dela.
Behar den dokumentazioa epe horretan aurkezten ez duten entitate lizitatzaileak prozeduratik kanpo geratuko dira.

7.3.- PROPOSAMENAK KALIFIKATZEA.- Proposamenen bat ez badator bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazio-tasa gainditzen badu, ezarritako eredutik nabarmen aldentzen bada, eskaintzaren zenbatekoan akats nabaria badu edo enpresa lizitatzaileak onartzen badu bideraezin bihurtzen duen akats edo ahultasunen bat dagoela, Kontratazio-mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez (APKLEOren 84. artikulua).

Bereziki, eskaintza baztertzeko arrazoia izango da ez betetzea balio-judizio baten arabera haztatu beharreko irizpideen dokumentazioa proposamenaren gainerakotik bereizitako gutun-azal batean aurkezteko betebeharra.

7.4.- ESKAINTZA NABARMENKI BAXUEGIAK.- Nabarmenki baxuegiak izango dira Ezaugarrien Koadroko M) atalean zehaztutako parametroen arabera identifikatutakoen modukoak diren eskaintzak. Halakoetan, SPKLren 149. artikuluan eta APKLEOren 85. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Kontratazio-mahaiak normaltasunetik kanpo dagoen eskaintzarik identifikatu badu, eskaintza hori aurkeztu duen enpresa lizitatzaileari hala adieraziko dio, eta epe egokia emango dio, eskaintza anormaltzat jotzea ekarri duen prezioa, kostua edo beste edozein parametro hain baxuak izatea justifikatzeko eta xehakatzeko, horretarako egokiak diren informazioa eta dokumentuak aurkeztuz.

Kontratazio-mahaiak enpresa lizitatzaileak epe barruan emandako informazio eta dokumentazio guztia ebaluatuko du, eta onartzeko edo ukatzeko proposamen arrazoitua igorriko dio kontratazio-organoari.

Baldin eta kontratazio-organoak, enpresa lizitatzailearen justifikazioa eta beharrezko txosten teknikoak kontuan hartuta, irizten badio bildutako informazioak ez duela behar bezala azaltzen enpresa lizitatzaileak proposatutako prezio edo kostuak zergatik diren hain baxuak, eta, beraz, eskaintza ezin dela bete balio anormalak dituelako, lizitaziotik kanpo utziko du. Oro har, baztertu egingo dira ustez anormalak diren eskaintzak, baldin eta ikuspegi tekniko, ekonomiko edo juridikotik desegokiak diren hipotesi edo jardunbideetan oinarrituta badaude.

7.5.- PROPOSAMENAK EBALUATZEA.- Kontratazio-mahaiak Agiri honen Ezaugarrien Koadroko K) eta L) ataletan jasotako balorazio-irizpideen arabera ebaluatuko ditu proposamenak, garrantzi eta haztapen handienetik txikienera. Horretarako, egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, eta egoki iritzitako proposamena egingo dio kontratazio-organoari.

Eskaintzak baloratzeko irizpideen arabera bi proposamen edo gehiago berdinduta badaude onuragarri izateari dagokionez, SPKLren 147.2 artikuluan jasotako irizpide sozialak aplikatuta lehenesten dena izango da adjudikaziodun; irizpide horietarako, Agiri honen Ezaugarrien Koadroaren I. atalaren arabera eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den unea hartuko da kontuan.

III. ADJUDIKATZEA

8.- ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA ADJUDIKAZIODUN IZATEKO PROPOSATUTAKO ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

8.1.- Kontratazio-mahaiak, SPKLren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-organoari igorriko dizkio aurkeztutako proposamenak, beheranzko hurrenkeran, betiere baztertu ez badira eta desproportzionatutzat edo anormaltzat jo ez badira. Proposamen horiekin batera, akta eta adjudikazio-proposamena ere bidaliko dizkio.

8.2.- Adjudikazio-proposamenaren xede den enpresa lizitatzaileak, kontratua adjudikatu aurretik, Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 8.3 klausulan eskatzen diren gaitasuna eta kaudimena frogatzen dituzten egiaztagiriak badituela eta benetakoak direla egiaztatu beharko du kontratazio-organoaren aurrean.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan aztertu beharko da Administrazioarekin kontratatzeko eskatzen diren gaitasun- eta kaudimen-betekizunak betetzen direla eta kontratatzeko debekurik ez dagoela, eta betekizun eta inguruabar horiek iraun egin beharko dute kontratua formalizatzeko unean.
Aurrekoan jasotakoa betetzeko, dagokion zerbitzuak honako hauek aurkezteko eskatuko dio eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileari: 140. artikuluaren 1. apartatuko a) letratik c) letrara bitartean aipatzen diren inguruabarrak justifikatzeko dokumentazioa eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko dokumentazioa (edo kontratazio-organoari baimena eman diezaion zuzenean egiaztatzeko), bai enpresa lizitatzailearenak bai haien gaitasuna erabiliko duen beste enpresenak ere. Halaber, eskatuko zaio egiaztatzeko kontratua benetan egikaritzeko erabiliko edo atxikiko dituen bitartekoak badituela eta agiri honetako 9. klausulan adierazitakoaren arabera dagokion behin betiko bermea eratu duela. Eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hamar egun balioduneko epea izango du enpresa lizitatzaileak hori guztia aurkezteko.

8.3.- 140. artikuluaren 1. apartatuko a) letratik c) letrara bitartean aipatzen diren inguruabarrak justifikatzeko dokumentazioari dagokionez, bai enpresa lizitatzailearenari bai gaitasunen xede diren beste enpresa batzuenari dagokionez, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Eskaera bere izenean edo ahaldun gisa aurkezten duen pertsonaren nortasun-agiri nazionala. Gainera, beste pertsona edo entitate baten ordezkari gisa jardunez gero, **notario-ahalordea**, entitate honek dokumentazioa kalifikatzeko prozesuan askietsiko duena.

b) Pertsona juridiko diren enpresen jarduteko gaitasuna eraketa- eta aldaketa-eskrituraren bidez egiaztatuko da, hala badagokio Merkataritza Erregistroan inskribatutakoaren bidez, baldin eta betekizun hori merkataritza-legeriaren arabera nahitaezkoa bada. Hala ez bada, eraketa-eskritura edo -dokumentuaren, estatutuen edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna; bertan, jarduerari buruzko arauak egongo dira jasota, eta dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko du.

c) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren eta tekniko edo profesionalaren betekizunak eta, hala badagokio, enpresa- edo lanbide-gaikuntza egiaztatzen dituztenak, Ezaugarrien Koadroko F) atalean adierazi bezala, bai Legearen 87. eta 90. artikuluetan ezarritakoari begira, bai galdatzekoa den gutxieneko sailkapen-talde edo -azpitaldeari eta kategoriari begira, betiere kontratuaren xedea indarreko sailkapen-talde edo -azpitalderen baten sailkapen-esparruan jasota badago –kontratuaren CPV kodeari begiratuko zaio hori jakiteko–.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresa lizitatzaileek ez dute aurkeztu beharrik izango b) eta c) letretan adierazitako dokumentazioa. Salbuespen hori gaitasun- eta kaudimen-inguruabarrak egiaztatzen dituzten dokumentuei bakarrik aplikatuko zaie, horiek ziurtagiriaren beraren bidez egiazta daitezkeenean.

Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko inguruabarrak bete egin beharko dira eskaintzak aurkezteko azken egunean, eta iraun egin beharko dute kontratua perfekzionatzeko unean.

Aldi baterako elkarte batean parte hartu nahi duten enpresek indibidualki aurkeztuko dute aurreko apartatuetan eskatutako dokumentazioa.

Dokumentuei dagokienez, jatorrizkoak edo egiazko kopiak aurkeztu beharko dira, indarrean dagoen legeriaren arabera.

SPKLren 65. artikulutik 76. artikulura bitartean eta 95. artikuluan ezarritako ondorioetarako, dagokion zerbitzuak eta Kontratazio-mahaiak argibideak eskatu ahal izango dizkiote enpresari aurkeztu dituen ziurtagirien eta dokumentuen inguruan, edo beste agiri osagarri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango diote. Enpresak bost egun balioduneko epea izango du horretarako, dagokion errekerimendua egiten zaionetik kontatzen hasita.

8.4.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Enpresa lizitatzaileak egoitza fiskala duen lekuko Zerga-administrazioak eta zergapeko jarduerak egin diren edo egiten diren lekuko Zerga-administrazioek emandako ziurtagiriak, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dutenak. Merkataritzakoak ez diren sozietateen edo nortasun juridikorik ez duten entitateen kasuan, ziurtagiriak sozietatearen, entitatearen edo establezimenduaren titularrari edo titularrei buruzkoak izango dira.
- Urteko ekitaldiari dagokion alta edo ekonomia-jardueren gaineko zergaren azken ordainagiria, zerga horren matrikulan baja eman ez duela esanez egindako erantzukizunpeko adierazpenarekin batera. Zerga horretatik salbuetsita egonez gero, zerga horren matrikulan baja eman ez duela esaten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, eta salbuespena zein den adierazi.

- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiria, entitate horrek kuotak ordainduta dituela egiaztatzen duena.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzio-ziurtagiria indarrean dutela egiaztatzen edo egiaztatu dutenak salbuetsita daude ziurtagiri horiek aurkeztu behar izatetik, betiere ziurtagiri horrek indarrean jarraitzen badu eta dagokion ziurtagirian adierazitako egoerak aldatu ez badira. Enpresak berariaz adierazi beharko ditu inguruabar horiek kontratua formalizatzeko dokumentuan, ekonomia-jardueren gaineko zergaren matrikulan baja eman ez duela esanez egindako erantzukizunpeko adierazpena izan ezik.

8.5.- Enpresa lizitatzaileak ez badu aurreko 8.2 puntuan aipatzen den errekerimendua adierazitako epean betetzen, ulertuko da erretiratu egin duela bere eskaintza, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio (BEZ kanpo) zehapen gisa. Horrez gain, dokumentazio hori bera eskatuko zaio eskaintzen sailkapeneko hurrengo enpresa lizitatzaileari.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA

9.1.- Eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileak bermea eratu beharko du, Ezaugarrien Koadroko N) atalean jasotakoaren arabera, eta Kontratazio-organoaren esku jarri beharko du.
9.2.- Dagokion behin betiko bermea eratu duela egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteko eskatuko dio Administrazioak enpresa lizitatzaileari. Errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hamar egun balioduneko epea izango du enpresak horretarako.
Enpresak ez badu betekizun hori betetzen, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Administrazioak ez du adjudikazioa bere alde egingo, eta SPKLren 150.2 artikuluaren azken apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.
9.3.- Bermea SPKLren 108. artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan eratu ahal izango da, APKLEOren 55. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako betekizunak betez.
SPKLren 110. artikuluan aipatutako kontzeptuei erantzungo die behin betiko bermeak. Bermeak itzuli eta kitatzeko, SPKLren 111. artikuluan eta APKLEOren 65. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

10.- ADJUDIKATZEA ETA JAKINARAZTEA

10.1.- Kontratazio-organoak adjudikaziodun izateko proposatu den enpresa lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan adjudikatu beharko du kontratua.

10.2.- Kontratua adjudikatzeko hainbat irizpide hartu behar direnean kontuan, edota irizpide bakarra erabiliz gero bizi-zikloko kostu txikiena duena erabiltzen denean, adjudikazioa egiteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzen direnetik kontatzen hasita, salbu eta Ezaugarrien Koadroan beste epe bat ezarri bada.

Proposamena gutun-azal batean baino gehiagotan egonez gero, eta gutun-azal horiek ekitaldi independenteetan ireki behar badira, adierazitako epea A gutun-azala irekitzeko egintzatik aurrera zenbatuko da.

10.3.- Agirietan jasotako irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenik ez dagoenean, Administrazioak aukera izango du kontratua adjudikazio-irizpideen arabera onena den eskaintzari adjudikatzeko edota lizitazioa adjudikatu gabe uzteko.

Hala ere, SPKLren 152. artikuluan aurreikusitako moduan, Administrazioak, kontratua formalizatu aurretik, uko egin ahal izango dio kontratua adjudikatzeari, interes publikoko arrazoiengatik, edo atzera egin ahal izango du izapidetutako prozeduran, zuzendu ezin diren akatsak baditu. Administrazio honek finkatuko du lizitazioak lizitatzaileei eragin dizkien gastuen konpentsazioa, haiei entzun eta justifikatu ondoren, eta betiere 1.000,00.- euroko mugarekin.

10.4.- Adjudikazioa arrazoitu egin beharko da, enpresa hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da, hamabost eguneko epean.

Jakinarazpenak, nolanahi ere, adjudikazio-prozeduran interesa duten pertsonek adjudikazio-erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsoa jartzeko behar adina informazio jaso beharko du. Bereziki, alderdi hauek jasoko ditu:

a) Baztertutako enpresa hautagaiei dagokienez, haien hautagaien hautagaitza ezesteko arrazoien azalpen laburra.

b) Adjudikazio-prozeduratik baztertutako enpresa lizitatzaileei dagokienez, labur, haien eskaintza ez onartzeko arrazoiak eta enpresa lizitatzaileei esleitutako balorazioen xehakapena, adjudikaziodunarena barne.

c) Enpresa adjudikaziodunaren izena eta haren proposamenaren ezaugarriak eta abantailak, haren eskaintza gainerako enpresa lizitatzaileek aurkeztutakoen aurretik hautatzeko erabakigarriak izan direnak.

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean kontratua formalizatzeko epea adieraziko da, SPKLren 153.3 artikuluari jarraituz.

10.5.- Aurkeztutako proposamenak –hala onarturikoak nola ireki gabe bazterturikoak eta ireki ondoren bazterturikoak– espedientean artxibatuko dira. Behin kontratua adjudikatuta dagoenean, eta errekurtsoak aurkezteko epea errekurtsorik jarri gabe amaitu bada, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesdunen esku geldituko da.

Enpresa lizitatzaileek ez badute dokumentazio hori urtebeteko epean eskatzen, suntsitu egin ahal izango da.

IV. KONTRATUA FORMALIZATZEA

11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK

11.1.- Enpresa adjudikaziodunak, adjudikazio-jakinarazpenaren hartu-agiria jaso ondoren, eta betiere kontratua formalizatu aurretik, kontratatu dituen eta Ezaugarrien Koadroaren P) atalean adierazitako aseguru-kontratuen polizaren kopia eta kontratazio-prima ordaindu izanaren frogagiria aurkeztu beharko ditu, eta bere kontura mantendu beharko du aseguru hori, kontratuaren eta bermearen epea indarrean dauden bitartean.

Aseguratutako mugak Administrazioak kontratazioaren xede den zerbitzuaren berezitasunen arabera erabakitakoak izango dira.

11.2.- Kontratua indarrean dagoen bitartean, aseguru horiei dagokien dokumentazioa erakusteko eskatu ahal izango dio organo kontratatzaileak enpresa kontratistari, edo polizen kopia edo horien ziurtagiriak emateko; halaber, primak ordainduta dituela egiaztatzeko eskatu ahal izango dio, eta betekizun hori betetzera derrigortu ahal izango du enpresa; bestela, organo kontratatzaileak eten egin ahal izango du obra-ziurtagirien eta/edo fakturen ordainketa, eta, hala badagokio, eten egin ahal izango du berme-epea kontatzen hasteko unea, eta etenaldi hori ez da kontuan hartuko kalte-ordainen ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe ez betetzeagatik sor litezkeen gainerako erantzukizunak.

12.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

12.1.- Administrazioak egiten dituen kontratuak lizitazioaren baldintzei zehatz-mehatz egokitutako administrazio-agirian formalizatu beharko dira, eta dokumentu hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratua eskritura publikoan jasotzeko eskatu ahal izango du kontratistak; kasu horretan, bere kontura izango dira dagozkion gastuak. Kontratua aldi baterako enpresa-elkarte bati adjudikatzen bazaio, enpresa horiek, 12.2 eta 12.3 ataletan aurreikusitako epearen barruan, egiaztatu beharko dute elkartea eskritura publikoan eratu dutela –talde horren iraupenak kontratuaren iraupenarekin bat etorri beharko du, kontratua iraungi arte—, eta aldi baterako enpresa-elkarteari esleitutako IFZ ere aurkeztu beharko dute.

12.2.- Kontratuari kontratazio-arloko errekurtso berezia jartzen ahal bazaio, formalizazioa ezin izango da egin adjudikazioaren jakinarazpena enpresa lizitatzaileei bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Kontratazio-organoak kontratua gehienez ere bost eguneko epean formalizatzeko eskatuko dio enpresa adjudikaziodunari, errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik hasita, kontratuaren formalizazioa etetea ekarriko lukeen errekurtsorik aurkeztu gabe igaro denean aurreko atalean aurreikusitako epea. Berdin jokatuko da errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera utziz gero.

12.3. – Gainerako kasuetan, kontratua gehienez ere hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da, enpresa lizitatzaileei adjudikazioaren jakinarazpena egiten zaien egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

12.4.- Enpresa adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada adierazitako epean formalizatzen, Administrazioak lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZ kanpo) % 3 eskatuko dio zehapen gisa. Zenbateko hori, lehenik eta behin, behin betiko bermetik ordainduko da, halakorik eratu bada, kalterik egin gabe SPKLren 71. artikuluaren 2. apartatuko b) letran ezarritakoari.

Kasu horretan, hurrengo enpresa lizitatzaileari adjudikatuko zaio kontratua, eskaintzen sailkapen-hurrenkeraren arabera, Agiri honetako 8. klausulan ezarritako dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta aurreko ataletan ezarritako epeak aplikatuko dira.
12.5.- Kontratua ez formalizatu izanaren arrazoiak Administrazioari egoztekoak badira, berandutzeak eragin dizkion kalte-galerengatiko kalte-ordaina emango zaio enpresa kontratistari.

12.6.- Kontratua ezin izango da egikaritzen hasi, aldez aurretik formalizatu ez bada. Salbuespen izango dira larrialdiko izapidetzeren xede diren espedienteetarako aurreikusitako kasuak.

V. KONTRATUA EGIKARITZEA

13.- KONTRATUA EGIKARITZEA

13.1.- EGIKARITZEA ZUZENTZEA ETA IKUSKATZEA. Kontratuaren zuzendaria titulazio egokia eta nahikoa duen pertsona bat izango da, eta bera arduratuko da, zuzenean, itundutako prestazioa behar bezala gauzatzen dela egiaztatzeaz, koordinatzeaz eta zaintzeaz.

Zuzendariak hainbat kolaboratzaile eduki ahal izango ditu bere aginduetara, bere eginkizuna betetzen lagundu diezaioten. Pertsona horiek beren titulu profesionalen edo ezagutza espezifikoen arabera egingo dituzte beren jarduerak, eta kontratuaren zuzendaritza osatuko dute.

Administrazioak kontratua formalizatzen denetik hamabost egun naturaleko epean komunikatuko dio enpresa kontratistari kontratazio-organoak izendatutako zuzendaria nor den, eta zuzendari horrek beste

horrenbeste egingo du bere kolaboratzaileei dagokienez. Enpresa kontratistari idatziz emango zaio aldaketen berri.

Kontratua egikaritzeko baldintza berezia izango da SPKLren 216. artikuluan ezarritako azpikontratistei edo hornitzaileei ordainketak egiteko epeak betetzea.
Kontratua egikaritzeko arriskua eta mentura kontratistak hartuko ditu bere gain.

13.2.- KONTRATUA EGIKARITZEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK
13.2.1.- Lanak egikaritzea. Kontratua Agiri honetan jasotako klausulen arabera egikarituko da, eta, hala dagokionean, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoen arabera, betiere Administrazioaren zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz baliatuko ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren mendeko pertsonei egotz dakizkiekeen egintzengatik edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen bada, kontratua ondo egikaritzeko edo bere onera itzultzeko beharrezko iritzitako neurriak hartzeko exijitu ahal izango du Administrazioak.
Honako hauek dira funtsezko kontratu-betebeharrak:

- Kontratua egikaritzeko behar diren giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitzea.
- Administrazio Klausulen Agiriaren eta Preskripzio Teknikoen Agiriaren arabera hala direnak.

Enpresa kontratistak SPKLren 311. artikuluan ezarritako erantzukizunekin egikarituko du kontratua. Akatsak, gabezia teknikoak, hutsegiteak edo desbideratzeak daudela egiaztatzen bada, SPKLren 314. eta 315. artikuluetan ezarritako zuzenketa-espedientea abiaraziko da.

Kontratua garatu bitartean, eta berme-epea bete arte, enpresa kontratista izango da antzemandako akatsen erantzule.

13.2.2.- Lanen eta kalteen gaineko erantzukizuna. Enpresa adjudikazioduna izango da egikaritzen dituen lanen, prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, bai eta kontratua egikaritzean egindako hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerren eraginez Administrazioari edo hirugarrenei eragindako ondorioen erantzule ere. Bere kontura izango da hirugarrenei eragindako kalteengatiko kalte-ordaina.

13.2.3.- Egikaritzeko epeak. Ezaugarrien Koadroko B) atalean ezarritakoa izango da. Luzapena edo luzapenak egitea aurreikusiz gero, kontratazio-organoak hartuko du halakoak egiteko erabakia, eta nahitaezkoak izango dira enpresaburuarentzat, betiere aurreabisua kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago egiten bada.

13.3.- EZINBESTEA. Ezinbesteko kasuetan, eta betiere enpresa kontratistaren aldetik zuhurtziagabekeria-jarduketarik ez badago, eragin ziazkion kalte eta galeren ordaina jasotzeko eskubidea izango du enpresak.

Ezinbesteko kasuak SPKLren 239. artikuluan ezarritakoak izango dira, eta APKLEOren 146. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetuko dira.

13.4.- ZEHAPENAK EGIKARITZE AKASTUNAGATIK, EZ-BETETZE PARTZIALENGATIK ETA BERANDUTZEAGATIK. Kontratuaren xede den prestazioa behar bezala betetzen ez bada, ezarritako konpromisoak edo kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez badira, edo enpresa kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan definitutako prestazioen gauzatze partziala betetzen ez badu, Ezaugarrien Koadroko Q) atalean jasotako zehapenak ezarriko dira.

Enpresa adjudikaziodunak kontratua egikaritzeko epea eta Administrazioak finkatutako epe partzialak betetzeko betebeharra dauka.

Baldin eta aipatutako epe horietako edozein amaitutakoan kontratista berandutu egiten bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Administrazioak kontratua suntsiaraztea edota zehapen ekonomikoak jartzea erabaki ahal izango du. Zehapen horien zenbatekoak Ezaugarrien Koadroko Q) atalean ezarritakoak izango dira.

Atzerapena enpresa kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatu bada, SPKLren 195.2 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Nolanahi ere, kontratista berandutze-egoeran egoteko, ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurretik ohartaraztea edo larderiaz adieraztea.

Zehapenak kontratazio-organoaren ebazpen bidez ezarriko dira, eta zehapen horiek erabakitzeko prozeduran jarduketa hauek egingo dira:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena, antzemandako ez-betetzeak identifikatuz eta zehapenaren zenbatekoa proposatuz.
b) Kontratistari entzunaldia, hamar (10) egun balioduneko epean, egokiak iruditzen zaizkion alegazioak egin ditzan.
c) Txosten juridikoa, kontratista aurka azaldu denean.
d) Kontratazio-organoaren ebazpena, zenbatekoak nola bilduko diren ezarriz.

13.5.- KALTE-GALERAK.

Kontratuaren xedea egikaritzean ez-betetze partziala, betetze akastuna edo atzerapena gertatu bada, eta kasu horietarako ez badago zehapenik aurreikusita, edo, aurreikusita egon arren, ez baditu Administrazioari egindako kalteak estaltzen, Administrazioak kalte-galeren ordaina eskatuko dio enpresa kontratistari.

13.6.- KONTRATATUTAKO LANARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

13.6.1.- Enpresak zerbitzua edo prestazioa emateko behar diren ekipoa eta bitarteko osagarriak jartzeko betebeharra du, kontratua hitzartutako epeetan behar bezala egikaritzeko.

Administrazioak uko egin ahal izango dio desegoki deritzon edozein elementuri, eta enpresak eskubidea izango du ebazpen horren aurka Administrazioaren aurrean erreklamazioa aurkezteko, jakinarazpenetik kontatzen hasita hamar egun naturaleko epean.

13.6.2.- Zerbitzua ematera atxikitako langileak enpresa adjudikaziodunaren mende egongo dira soil-soilik, eta hark bakarrik izango ditu enplegatzaile izateagatik dagozkion eskubideak eta betebeharrak. Ondorio horietarako, enpresa adjudikaziodunak betebehar hauek izango ditu:

1.- Enpresa adjudikaziodunari soilik dagokio kontratua egikaritzeari atxikitako lantaldea osatuko duten langileak hautatzea. Langile horiek eskatutako titulazio- eta esperientzia-betekizunak bete beharko dituzte betiere, eta Administrazioak aukera izango du langileek betekizun horiek betetzen dituztela egiaztatzeko.

2.- Lantaldean egonkortasunari eusten saiatuko da enpresa adjudikazioduna. Lantaldearen osaeran aldaketarik egitekotan, halakoak puntualak izaten eta justifikatutako arrazoietan oinarrituta egiten saiatuko da, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez kaltetzeko, eta Administrazioari une oro emango dio halakoen berri.

3.- Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartzen du kontratua egikaritzeaz arduratuko den lantaldeko langileekiko modu erreal, eraginkor eta jarraituan baliatzeko enpresa orori dagokion zuzendaritza-ahala egikaritzeko betebeharra. Zehazki, bere gain hartuko ditu soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; baja- edo absentzia-kasuetan langileak ordezkatzea; Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak betetzea (kotizazioak ordaintzea eta, hala dagokionean, prestazioak ordaintzea barne); lan-arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak betetzea; diziplina-ahala baliatzea; eta enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak.

4.- Enpresa adjudikaziodunak bereziki zainduko du kontratua egikaritzeari atxikitako langileek baldintza-agirietan kontratuaren xede gisa zehaztutako jardueraren mugak gainditu gabe egin dezaten beren jarduera.

5.- Enpresa adjudikaziodunak gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du bere langileen artean. Pertsona horrek honako betebehar hauek izango ditu:

a) Enpresa adjudikaziodunaren solaskide gisa jardutea Administrazioaren aurrean, kontratua egikaritzeari lotutako alderdi guztietan komunikazioa kanalizatuz batetik enpresa kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen eta bestetik «entitate kontratatzailearen» artean.
b) Lana kontratua egikaritzeaz arduratzen diren langileen artean banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateko behar diren lan-agindu eta -jarraibideak ematea.
c) Lantaldeko langileek esleituta dituzten funtzioak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanera joaten direla kontrolatzea.
d) Kontratua egikaritzeari atxikitako langileen opor-araubidea antolatzea. Horretarako, enpresa adjudikazioduna behar bezala koordinatu beharko da Administrazioarekin, zerbitzuaren funtzionamendu egokiari kalterik ez egiteko.
e) Kontratua egikaritzeari atxikitako lantaldearen osaeran izandako behin-behineko edo behin betiko aldaketen berri ematea Administrazioari.

13.6.3.- Lanen gaineko jabetza. Egindako lanak, edozein fasetan, Administrazioaren jabetzakoak izango dira, eta, beraz, Administrazioak edozein unetan eskatu ahal izango du prestazioen zati bat entregatzeko, betiere behin betiko lanketa-programarekin bateragarria bada eta lanen garapen egokiari eragiten ez badio.

13.6.4.- Kaltegabetasun-erregela. Baldin eta, enpresa adjudikaziodunak klausula honi jarraituz bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, Administrazioa diru-kopuru bat ordaintzera kondenatuko balitz enpresa adjudikaziodunarekin solidarioki, enpresa adjudikaziodunari jasanaraziko zaio ordaindutako zenbatekoa, eta, horretarako, Administrazioak edozein akzio administratibo edo judizial baliatu ahal izango du, ordaindutako zenbatekoak guztiz berreskuratu arte.

13.7.- LAN AKASTUNAK EDO GAIZKI EGIKARITUTAKOAK

13.7.1.- Kontratatutako lanak behar bezala egiteko betebeharra izango du enpresa kontratistak, eta, lan horietan akatsik egonez gero, bera izango da akatsen erantzule. Administrazioaren ordezkariak lan horiek egin bitartean aztertu izanak edo egiaztapen, balorazio edo ziurtapen partzialetan onartu izanak ez du enpresa kontratista erantzukizun horretatik salbuetsiko, eta inguruabar horrek ez dio halaber inolako eskubiderik emango.

13.7.2.- Lan akastuna edo gaizki egikaritutakoa Administrazioak emandako agindu baten ondorio zuzen

eta berehalakoa denean, erantzukizunetik salbuetsita geratuko da enpresa kontratista.

13.7.3.- Administrazioaren iritzian ez badira kontratuaren preskripzio teknikoak bete, APKLEOren 203. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, eta prestazioak ez baditu jasotzeko baldintzak betetzen, APKLEOren 204. artikuluan eta Agiri honen 13.14 klausulan xedatutakoari jarraituko zaio.

13.8.- ENPRESA KONTRATISTARI ORDAINKETAK EGITEA. Kontratuaren prezioa Ezaugarrien Koadroko R) atalean ezarritakoaren arabera ordainduko da.
Lanen balorazioa APKLEOren 199. eta 200. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo da.

13.9.- ENPRESA KONTRATISTAREN BETEBEHAR ESPEZIFIKOAK ETA GASTU GALDAGARRIAK. Kontratu honen araubide juridikotik eratorritako betebehar orokorrez gain, betebehar espezifiko hauek ere izango ditu enpresa kontratistak:

a) **INGURUMEN-, GIZARTE- ETA LAN-ARLOETAN**. Enpresa kontratistak Europar Batasuneko zuzenbidean, estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo estatua lotzen duten nazioarteko zuzenbidean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu ingurumen-, gizarte- eta lan-arloetan, eta, bereziki, SPKLren V. eranskinean ezarritakoak.

Bereziki:
1.- Eman beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo baten menpe daudenean, dagokion lan-ordenantzako eta hitzarmen kolektiboko xedapenak bete beharko ditu.

2.- Lan-arriskuak prebenitzeko beharrezkoak diren edo bete beharrekoak diren neurri guztiak hartuko ditu enpresak. Halaber, indarrean dagoen araudiak laneko arriskuen prebentzioaren arloan ezarritako betebeharrak beteko ditu, eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, betebehar hauek betetzen dituela frogatu beharko du:
- Kontratatutako jarduerari dagozkion arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza.
- Kontratua egikaritzen arituko diren langileei prebentzioaren arloko prestakuntza eta informazioa.
- Norbera babesteko ekipamenduak eman izanaren egiaztagiria, halakorik behar izanez gero.

3.- Enpresak lanen zati bat azpikontratatzen badu, adierazitako betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratei, eta Administrazio kontratatzaileari aurkeztu beharko dizkio. Enpresek, orobat, lanak hasi aurretik egindako azpikontratazioen berri eman beharko diote segurtasun- eta osasun-gaietako koordinatzaileari.

4.- Langileei lanean jardun bitartean istripuren bat edo edonolako kalteren bat gertatuz gero, bere erantzukizunpean beteko du indarrean dauden arauetan ezarritakoa, eta erantzukizun hori ez da inola ere Administrazioarengana iritsiko.

5.- Lege-arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek hala ezartzen duelako Ezaugarrien Koadroak hala adierazten duenean, enpresa adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatu beharko da ukitutako langileekiko lan-harremanetan.

Kontratua amaitu aurretik, kontratistak, enplegatzaile den aldetik, kontratua egikaritzeari atxikitako langileen kontratuetako baldintzei buruz beharrezkoa den informazioa emateko betebeharra izango du, lan-subrogazioak eragiten dituen lan-kostuak zehatz-mehatz ebaluatu ahal izateko. Udalak eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Dokumentazio horretan, besteak beste, subrogazioaren xede diren langileen zerrendak jasoko dira, honako hauek adieraziz: aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa, kategoria bakoitzaren xehetasunak, kontratu-mota, lanaldia, antzinatasun-data, kontratuaren muga-eguna, langile bakoitzaren soldata gordina, bai eta subrogazioak ukitutako langileei aplikatu beharreko indarreko itunak ere. Administrazioak Ezaugarrien Koadroan interesa duten lizitatzaile guztiei emango die informazio hori, eta adieraziko du SPKLren 130. artikuluan aurreikusitakoa betez ematen duela informazio hori.

Kontratistak ez badu ematen klausula honen arabera subrogazioari buruz eman behar duen informazioa, hori kontratuaren ez-betetzetzat hartuko da, eta kontratuaren prezioaren (BEZ kanpo) % 10era arteko zehapena ezarriko du.

Baldin eta, subrogazioa egin ondoren, lan-kostuak handiagoak badira lehengo kontratistak kontratazio-organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino, kontratistak zuzeneko akzioa izango du aurreko kontratistaren aurka.

Kalterik egin gabe hala dagokionean urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa aplikatzeari, kontratistak ordainduko ditu subrogazioak ukitutako langileei ordaindu ez zaizkien soldatak, bai eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioak ere, nahiz eta kontratua suntsiarazi eta haiek kontratista berriak subrogatu, betebehar hori ez baita inola ere kontratista berriarena izango. Kasu horretan, Administrazioak, aipatutako soldatak ordaindu gabe daudela egiaztatu ondoren, atxiki egingo ditu kontratistari zor dizkion zenbatekoak, soldata horiek ordainduko direla bermatzeko; eta, soldatak ordaindu direla egiaztatzen ez den bitartean, ez du behin betiko bermea itzuliko.

b) **KONTRATUA EGIKARITZEKO EGIN BEHAR DIREN GASTUAK**. Enpresa kontratistaren kontura izango dira erakunde ofizialen edo partikularren aldetik lizentziak, dokumentuak edo edozein informazio lortzeko ordaindu behar diren gastuak. Haren kontura izango dira, halaber, indarrean dauden xedapenen arabera aplikatzekoak diren zergak, eskubideak, tasak, konpentsazioak eta gainerako kargak edo gastuak ere, xedapen horietan adierazitako moduan eta zenbatekoan.

   Enpresa adjudikaziodunari dagokio prestazioa emateko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia ofizial nahiz partikular guztiak lortzea.

c) **ADMINISTRAZIO KONTRATATZAILEAREKIN LANKIDETZAN ARITZEA**. Administrazioari inolako kostu gehigarririk gabe eman beharko zaizkio kontratuaren xedea behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu profesionalak, hala nola azalpen-bilerak, jendaurreko informazioa, eta abar.

d) **HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK**. Kontratu hau euskararen erabilerarekin zerikusia duen araudiak arautzen du; besteak beste, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta lege hori garatzeko arauek.

Euskadiko toki-erakundeetako hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 36.6 artikuluak ezartzen du kontratua egikaritzeko hizkuntza-baldintzetan kontuan hartuko direla kontratuaren bidez garatu beharreko funtzioei lotuta dauden proportzionaltasun-printzipioak, haien ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera, eta enpresak bere edo besteren bitartekoekin frogatu ahal izango dituela.

13.10.- KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK. Enpresa kontratista adjudikaziodunak erantzun egingo die Administrazioak egindako informazio-eskaerei, Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Gardentasunari, Gobernu Irekiari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Erregelamenduaren I. Tituluko betebeharrak betetzeari begira, eta kontratua egikaritzean bete egingo ditu kontratuaren xedeari lotutako baldintza bereziak (sozialak, etikoak, ingurumenekoak edo bestelakoak), Ezaugarrien Koadroko S) apartatuan zehaztu direnak, baita Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakoa ere.

13.11.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA. Kontratuaren lagapenari dagokionez, SPKLren 214. artikuluan aurreikusitakoa beteko da. Enpresa adjudikaziodunak SPKLren 215. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu kontratuaren zati bat egikaritzeko hirugarrenak kontratatuz gero, eta enpresa azpikontratistei eta hornitzaileei ordainketak egitean SPKLren 216. artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko dio.

Enpresa lizitatzaileek eskaintzan adierazi beharko dute kontratuaren zer zati azpikontratatzeko asmoa duten, azpikontratazioaren zenbatekoa zein den, eta lan hori egingo duten enpresa azpikontratisten izena edo enpresa-profila (kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera definituta).

Enpresa kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta, beranduenez, kontratua egikaritzen hastean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta alderdi hauek zehaztu beharko dizkio: zer zati azpikontratatu nahi duen, enpresa azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak. Gainera, behar bezala justifikatu beharko du azpikontratua egikaritzeko gaitasuna duela, dituen elementu teknikoak eta giza elementuak eta esperientzia aipatuta, eta frogatuta kontratatzeko debekurik ez duela. Horrez gain, jakinarazi egin beharko du kontratu nagusia egikaritu bitartean informazio horrek izan dezakeen edozein aldaketa eta azpikontratatutako enpresa berriei buruz beharrezkoa den informazio guztia.

13.12.- KONTRATUA ALDATZEA. Kontratu hau Ezaugarrien Koadroan ezarritakoaren arabera bakarrik aldatu ahal izango da (SPKLren 204. artikulua), interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta moduan, eta SPKLren 207. artikuluan araututako prozedurari jarraituz. Kasu horietan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat, 205. artikuluan jasotako kontratu-aldaketen kasuetan izan ezik; izan ere, aldaketa horiek nahitaezkoak izango dira soilik bakarka edo batera kontratuaren hasierako prezioaren (BEZ kanpo) % 20tik gorako aldaketarik ez dakartenean.

3.13.- KONTRATUA ETETEA. Kontratua eteteari dagokionez, SPKLren 208. artikuluan eta APKLEOren 103. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Kontratua eteten bada, partzialki edo osotasunean, aldi baterakoa nahiz behin betiko, dagokion Etete-akta egingo da. Akta horretan, honako hauek jasoko dira: etetea eragin zuen Administrazioaren erabakia, etenaldia eragin duten inguruabarrak eta kontratua egikaritzean izandako egitatezko egoera. Zehatz-mehatz definituko dira hark ukitutako prestazioa edo prestazio zatia edo zatiak.

Etetea erabaki eta gero, Administrazioak benetan jasandako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio enpresari kontratistari, SPKLren 208.2 artikuluan adierazitako erregelen arabera.

13.14.- PRESTAZIOA JASOTZEA. Prestazioa SPKLren 210. eta 311. artikuluetan xedatutakoaren arabera jasoko da.

13.14.1.- Enpresa kontratistak kontratua bete duela ulertuko da, prestazio osoa kontratuaren baldintzen arabera eta Administrazioaren oniritziarekin eman duenean.

Hori egiaztatzeko, Administrazioak jasotze- edo adostasun-egintza formal eta positibo bat egin beharko du kontratuaren xedea entregatu edo egikaritu eta hurrengo hilabetearen barruan.

Kontratazio-organoak erabakiko du enpresa kontratistak emandako prestazioak horiek egikaritzeko eta betetzeko ezarritako baldintzak bete dituen ala ez. Horretarako, SPKLren 190. eta 191. artikuluetan ezarritako prerrogatibak erabiliko ditu, eta, hala badagokio, prestazioa jasotzean kontratatutako prestazioari dagokionez antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio. Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen edo hutsegiteen ondorioz, uko egin ahal izango die, eta ordaintzeko betebeharretik libre geratuko da edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.
13.14.2.- Jasotze-akta egiten denetik hogeita hamar eguneko epearen barruan, hala badagokio, kontratuari dagokion likidazioa egingo da, eta enpresa kontratistari horren berri emango zaio; eta, hala badagokio, dagokion saldoa ordainduko zaio.

13.15.- BERME-ALDIA. Kontratu honen izaera kontuan hartuta, ez da aurreikusten berme-eperik ezartzea.
13.16.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA. Kontratua suntsiarazi egingo da SPKLren 211. eta 313. artikuluetan aipatzen diren kasuetan. Kontratazio-organoak erabakiko du kontratua suntsiaraztea, ofizioz edo enpresa kontratistak eskatuta, enpresari entzunaldia emango zaiola bermatzen duen prozeduraren baten bidez, eta suntsiarazpenak SPKLren 212., 213. eta 313. artikuluetan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Kontratua enpresa adjudikaziodunaren erruz suntsiarazten bada, konfiskatu egingo zaio behin betiko bermea, eta Administrazioari eragindako kalte-galerengatiko ordaina eman behar izan lezake, bahitutako bermearen zenbatekoa gainditzen duen kopuruan.

Kontratua suntsiarazteko arrazoi espezifikoak honako hauek dira:

1.- Administrazio-klausulen agirietan edo preskripzio teknikoen agirian funtsezkotzat jotako betebeharrak ez betetzea.
2.- Preskripzio teknikoen agiriaren 11. puntuan aurreikusitako arau-hauste oso astun bat egitea.

13.17.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA. Entitate adjudikaziodunak datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, bereziki, honako hauek: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
Zerbitzua ematean datu pertsonalen tratamendua egin behar izanez gero, entitate adjudikaziodunak klausula honetan adierazitakoa ere bete beharko du.
Entitate adjudikazioduna tratamenduaren arduraduna izango da, eta ahalmena izango du kontratazioaren xede den zerbitzua emateko behar diren datu pertsonalak tratatzeko, tratamenduaren erantzule den Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen kontura. Hori guztia III. eranskinean zehaztuko da, zeina entitate adjudikaziodunarekin sinatuko den.

Ukitutako informazioaren identifikazioa
Kontratazio-agiriaren xedea betetzearekin lotutako prestazioak emateko, Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak III. eranskinean deskribatzen den informazioa jarriko du entitate adjudikaziodunaren esku, hau da, tratamenduaren arduradunaren esku.

Iraupena
Klausula honetan adierazitakoa harreman lotesleak irauten duen bitartean egongo da indarrean, edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan. Hori horrela izanik ere, egokitzat jotzen diren aldizkako berrikuspenak egin ahal izango dira tratamenduaren arduradunaren zerbitzura dauden datuak eta informazioa berrikusteko eta egiaztatzeko.
Harreman hori amaitutakoan, entitate adjudikaziodunak ezabatu egin beharko ditu datu pertsonalak, tratamenduaren arduradun gisa dituen betebeharrei buruzko hurrengo atalean aurreikusitakoaren arabera, eta ez du inolako kopiarik gorde beharko, salbu eta Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak baimen espresua ematen badio.
Tratamenduaren arduradunaren betebeharrak
Entitate adjudikaziodunak eta, hala badagokio, bere mendeko langileek, betebehar hauek izango dituzte:

a) Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak edo jasotzeko bildutakoak Agiri honen helbururako soilik erabiltzea. Inola ere ezin izango ditu datuak bere helburu propioetarako erabili.
b) Datuak Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen jarraibideen arabera tratatzea.
c) Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroa idatziz eramatea, honako hauek jasota:

- Entitate adjudikaziodunaren izena eta harremanetarako datuak eta, hala badagokio, datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak.
- Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen kontura egindako tratamenduen kategoriak.
- Segurtasun-neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien deskribapena, aplikatu behar izanez gero, honako hauen ingurukoena:
  - Izenordeak erabiltzea eta datu pertsonalak zifratzea.
  - Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, integritatea, eskuragarritasuna eta erresilientzia iraunkorrak bermatzeko gaitasuna.
  - Gorabehera fisiko edo teknikoen kasuan, datu pertsonalen erabilgarritasuna eta sarbidea azkar berrezartzeko gaitasuna.
  - Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolamendu-neurrien efikazia egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesua.

d) Lagapenak eta erabiltzaileen datuak: oro har, ezin izango zaie daturik jakinarazi hirugarren pertsona edo entitateei, ordezkaritzaren eta defentsa judizialaren esparruan legitimatuta dauden hirugarrenek ezagutu behar duten informazioa izan ezik.
e) Azpikontratazioa: debekatuta dago akordio honen xede diren prestazioak azpikontratatzea.
f) Kontratazio-prozesu honen ondorioz eskura izan dituen datu pertsonalei buruzko sekretu-betebeharra mantentzea, baita xedea amaitu ondoren ere.
g) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek berariaz eta idatziz konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea, eta Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen esku uztea betebehar hori betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa.
h) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duen entitate adjudikazioduneko langileei datu pertsonalen babesaren arloan behar den prestakuntza bermatzea.
i) Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari laguntzea datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezabatzeko eta haien aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko (profilak egitea barne) eta, hala badagokio, eramangarritasun-eskubideei erantzuten. Entitate adjudikaziodunak, datuen tratamenduei dagozkien eskubideak egikaritzeko eskaeraren bat jasotzen badu arduradunaren aldetik, gehienez ere 48 orduko epean jakinarazi beharko dio Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari.
j) Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari dagokio interesdunei informazioa jasotzeko eskubidea bermatzea. Beraz, entitate adjudikaziodunak ez ditu bere informazio-ereduak aurkeztu

beharko, eta Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak emandakoetara joko du, edo, datuak biltzeko edozein bitarteko edo kanaletan sartu behar baditu, eskatu egingo ditu.

k) Datuetan dauden segurtasun-arrakalak jakinaraztea: entitate adjudikaziodunak atzerapenik gabe eta, betiere, 24 orduko epea baino lehen jakinaraziko dizkio Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari edo kontratuaren xedea egikaritzeko eta/edo gainbegiratzeko arduradunari, posta elektronikoz, ezagutzen dituen datu pertsonalen segurtasunaren urraketak, eta gorabehera dokumentatzeko eta jakinarazteko garrantzizko informazio guztia emango dio (zehazki, gorabeheraren deskribapena eta ondorio posibleak, ukitutako pertsonen kategoria eta gutxi gorabeherako kopurua, eragina konpontzeko eta arintzeko hartutako neurriak). Jakinarazpen hori egitea ez da beharrezkoa izango, segurtasunaren urraketa horrek ez badie inolako arriskurik ekarriko pertsona fisikoen eskubide eta askatasunei.
l) Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari datuak babesteari buruzko inpaktu-ebaluazioak egiten laguntzea, hala dagokionean.
m) Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari kontrol-agintaritzaren aurreko kontsultak egiten laguntzea, hala dagokionean.
n) Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen esku jartzea bere betebeharrak bete dituela frogatzeko behar duen informazio guztia, baita Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean edo hark baimendutako beste auditoreren batean egiten dituzten auditoretzak edo ikuskapenak egiteko ere.
o) Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, integritatea, eskuragarritasuna eta erresilientzia iraunkorrak bermatuko dituzten segurtasun-neurriak ezartzea. Halaber, gorabehera fisiko edo teknikorik gertatuz gero datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar leheneratzea ahalbidetzen dutenak, tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri teknikoen eta antolamendu-neurrien eraginkortasuna erregulartasunez egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko aukera ematen dutela. Ziurtagirien eta egiaztagirien bidez froga daitezkeen beste neurri batzuk ere ezarri ahal izango ditu, onartutako estandarren arabera alderdien artean jarraibideen bidez ezarri edo adostu daitezkeenak. Ezarri beharreko segurtasun-neurriak Zerbitzuaren Hasierako Aktan zehaztutakoak izango dira, gutxienez.
p) Datuen helmuga: Entitate adjudikaziodunak, prestazioa bete ondoren, Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari itzuli beharko dizkio datu pertsonalak eta, hala badagokio, horien euskarriak. Horiek itzultzearekin batera, adjudikaziodunak erabat ezabatu beharko ditu erabilitako ekipo informatikoetan dauden datuak.

Orobat, SPKLk adjudikazioaren publizitateari eta enpresa hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz jasotako xedapenak alde batera utzi gabe, kontratazio-organoak ezin izango du zabaldu enpresek sekretu tekniko edo komertzialekin lotura dutelako eta lotura hori justifikatzen duten arrazoiak azalduz konfidentzialtzat jo duten informazioa.

VI. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14.1.- Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik egonez gero, Agiri honetan xedatutakoa nagusituko da. Kontratazio-organoak prerrogatiba hauek izango ditu: administrazio-kontratuak interpretatzea, kontratu horiek betetzean sortzen diren zalantzak argitzea, kontratuak interes publikoko arrazoiak direla-eta aldatzea, kontratua egikaritzearen ondorioz enpresa kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzea, kontratua etetea, suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea, SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan adierazitako mugen barruan eta bertako betekizunei eta ondorioei jarraituz.

Halaber, kontratazio-organoak ahalmena izango du enpresa kontratistek kontratua egikaritu bitartean egiten dituzten jarduerak ikuskatzeko, lege horretan ezarritako baldintzen eta mugen barruan.

Kontratazio-organoak interpretatzeko, aldatzeko eta suntsiarazteko dituen prerrogatibak erabiliz hartutako erabakiak berehala egikaritu beharrekoak izango dira.

14.2.- Kontratazio-organo eskudunak ebatziko ditu kontratu honen interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sortzen diren auziak. Kontratazio-organo horren erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta haien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legean aurreikusitakoaren arabera. Dena dela, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoa.

14.3.- SPKLren 44.2 artikuluan aipatzen diren egintzen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal izango da. Errekurtso berezi horiek aztertzea eta ebaztea Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoari dagokio.